

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Irizar Guridi

*Oñati, Gipuzkoa
(1916-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Zubillaga auzoko Martelopezkua ("Martezkua") baserrian jaioa. 8 anai-arreba ziren. Madalenako (Santsolopetegi auzoa) eskolan ibili zen lehenbizi, baina 8 urterekin Antzuelas Beittira joan zen morroi, osabarenera, eta Sarramendiko eskolan ibili zen. 12 urterekin etxera itzuli eta beste urtebete egin zuen Madalenako eskolan. 14 urterekin zerrategian hasi zen lanean eta bertan jardun zuen soldadutzara joan arte 20 urte zituela. Gerra ondoren Zubillagan hasi zen lanean eta denborarekin bazkide batzuen artean zerrategia erosi zuten. Handik zotz-fabrikara pasa ziren gero. Emaztea ere oñatiarra du, Olabarrieta auzokoa.

Zintak

ONA-073

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-01-22
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-074

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-01-22
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. "Betik" zotz lantegiaren hasiera

- **Erref:** ONA-073/001
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Nikolas Errastik, Pedro Diortxuenak eta berak erosi zuten zerrategi bat Zubillagan. Hori izan zen Betik "palillo" (zotz) lantegiaren lehen urratsa. Zubillagan hamar urte igaro eta gero Liñazibar aldera joan ziren.

Transkripzioa

- Hik Oñatin palillo fabrikia ezagutuko dok ba?
- Oingua bai.
- Ba haren hasieria dok hemen, Arretxeko etxe ostien, tejabanan hasitta, zerratxo bat...
- Eta gero han Liñazibarren egon zan ba?
- Hori erosi giñuan guk hiru soziok, zerratxua, bertako zera aspertu in zuan zerran, eta zerria saldu eta kamiona erosteko, kamiona erosi xuan. Hor hasi bai, eta hiru gitzuan gu, Nikolas Errasti, koñatua Pedro Diortxuena eta neu, hiru sozio. Oin pareja bat hil zuan, Errasti eta andria bixok, eta [...]
- Pedro Diortxuenan andria bizi dok. Eta gu ondiok bixok bizi gaittuk. Asike hemen hasittako akziñuak partiak ondiok guk.
- Baiña zuek Azkuagaiñera fan aurretik han Liñazibar inguruan egon ziñain ba, ezta?
- Leheningo hemen hamar urtien, hortxe tejabana baten, hementxe etxe ostien. Eta gero segiduan han, zuen etxetik beheratxuauan, Errastin behian.

2. Zotz biribilak Txinatik ekarriak

- **Erref:** ONA-073/003
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:05:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Aloñazpi garajea egon zen lekuan hasi zen zotz lantegia. Han zeudela erosi zuten Azkoagaineko terrenoa lantegi berria eraikitzeko. Betik-en langilerik gehien izan zutenean 62 lagun izan ziren. Gaur ia erdira jaitsita dauka kopuru hori. Zotz laua egiten dute oraindik, eta biribila Txinatik ekartzen dute.

Transkripzioa

- ...sozietik gaztiena neu nitzuan ta, edadekua, artian gaztia. Han in giñuan beste hamar urte, hor, Aloñazpi garajia egon dok ba, han. Han hasi gitzuan palillo fabrikia, hantxe. Eta bittarte hartan in gixuan terrenuak erosi Azkuagaiñen. Han montaitteko geure tinglauri, fabrikia. Horixe in giñuan, eta ondiok bizi gaittuk. Gere epokan lana ondo indda, dirua be irabazi epoka baten in giñuan, baiña gaur egun ez xok duro bat emuten. Ondiok berrogeta... bost-sei bat lagun; ez, geixki esan xuat, berrogei azpittik xaok oin, bajauaz xoiak eta, hogeta hamasei-hogeta hemezortzi bat lagun egongo dittuk, langilliak.
- Zenbat jente eukittera aillau ziran? Zenbat langille gehixen euki (di)ttuzuenien?
- Guk gehixen euki dugunien? Hirurogeta bi-edo izan zittuan.
- Fabrikatxua. Baiña hori dana eskuz itten zan garaixan, ezta?
- Oin eukitten xuagu gauza batzuk, depresoriak, medikuendako, eta gero

helauendako barillak eta palillo planua, ba gu Europan danian baiño hobeto preparauta gaozak; ez dok saltzen, gero eta gutxiago.

- Eta borobilla ez dozue itten?

- Redondua epoka baten in giñuan, baiña oin hemengo manobriakin ezin lekek. Planua itten xuagu ba itteko mekanizaua eta gero enpaketadora makiña bat baxakuagu eta harekin eta hortik eta hemendik eta. Baiña redonduak lan asko xakok, eskulan asko eta horreatik ekarten xuagu momentu hontan Txinatik.

- Palillua? Eta gero euskaldun izena ifiñi eta saldu?

- Txinatik ekarri ez bazan, ha fabrikia hamabost urte hontan zarrauta egongo zuan.

3. Zotz industria

- **Erref:** ONA-073/004
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:08:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Palillo borobila Japon eta Brasiletik ekartzen saiatu ziren, Chinakoak aurkitu aurretik. Txinatar langileek ez omen dute hilabete batean, gurean egun batean irabazten den dirua jasotzen. Betik palillologintzan hasi zenean, Espainia guztian hamar halako lantegi zeuden, gaur gehienak ezkutatuta; horietako batzuk Betik-ek berak bereganatu zituen.

4. 1916an Martezkoan jaioa

- **Erref:** ONA-073/006
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:10:03. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

1916. urteko San Pedro egunean jaio zen Pedro. Bera eta bere anai-arrebak eta sei seme-alabak Martezkua (Martelopezkoa) baserrian jaioak dira.

5. Biblia euskarara itzultzen

- **Erref:** ONA-073/008
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:14:49. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Bere semeak Araotzeko Paulo fraidea izan zuen bizikide Donostian. Paulok hiru urtean jardun zuen Biblia euskaratzen, Arantzazuko bere gelan sartuta.

Transkripzioa

- Eta gero hortik etorri zuan hona, hemen Arantzazura, gero Donostian euki xuein eurok hiru-lau bat, etxe baten egoten zittuan. Araoztarra bat, Paulo.
- (...)
- Horen anaia franziskanua eta hor hiru-lau bat egon zirala. Hara fan aurtxuan horrek euki xuan lana fuertia. Hiru bat urte in txuan horrek Arantzazun zeldan sartu bai, bere kuartuan, Biblia euskerara traduzitten. Horreik orduan ekipua ibilli dok hor, protestantiak-eta danak ibilli zittuan; baiña hori dok pixurik gehixen eruen ebena, hori bibliori euskerara traduzitten. Zeatik honek zela grieguok eta latiñok eta harutzaokuok eta honatzaokuok, honek lengua asko xakik, afiziñua euki xok beorrek gaiñera eta, horrek bakaziñotan be etxera etorten zanian etxera, saludau bai baiña fan itten zuan, edo Irlandara -do, Inglaterrara ingles ikastera-edo, Frantziara frantses ikastera-edo. Leku danetan konbentuan zela “hotel pagado” eukitten dauen, danian xakuei ba konbentuak, afeziñua hortarakotxe. Eta hori Biblia traduziu xuan kolejixuan, hiru bat urte bai.
- Urten be in barik!
- Urten ba reunixua eukenian, batian Mondrauera ta bestian Segurara edo zerara...

6. Morroi izanda ere eskolara

- **Erref:** ONA-073/011
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:20:11. **Bukatu:** 00:23:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Madalenako eskolan hasi zen umetan. Zortzi urterekin Antzuelas Beitia baserrira joan zen morroi. Antzuelas Beittik Sarramendiko eskolara joaten zen. Hamabi urterekin beste urtebete egin zuen Madalenako eskolan.</p>

Transkripzioa

- Eta zuk zeuk ez zebeñ ikasi injieneritzarik eskolan?
- Nik esango dostat ze ikasi neben. Leheningo akuerdia badakik, lau urtekin edo seikin hasten dok zeozar ta orduan eskolan hemen bagabitzaken, Madalenako eskolan.
- Madalenara faten ziñain?
- Maistria hor xauan, maistra bat egurra emuten ebena. Harekin nabillaken baiña zortzi urte neukala Beittin falta itten xuan han be, Beittin betik egon dok kriaia eta neguan negu-mutilla, eta kriaia baten lekuan bi, ha baserri haundixa zuan orduan ta. Baiña ni fan nitzuan zortzi urtekin Beittira.
- Antzuelas Beittira?
- Antzuelas Beittira. Eta pasau nittuan hiru urte eta hiru hillabete.
- Morroi?
- Morroi. Kriaia, tion etxian baiña kriaia. Baiña nere aitta ta ama hareitxek zittuan, e? Ta epoka hartan, gabonetan, ni fan nitzan San Mieleetan bai,

gabonetan etxera eta gero bixan bittartien ba zeozer, nobedaden bat euenian ba, trena inaugurau zanian-ta... han xauan Sarramendi eskolia, ez dakik nun dauen?

- Sarramendi eskolia bai, Sarramendi baserrixan.

- Baserrittik honutzago, eskolia.

- Baiña leheningo eurak etxian irakutsi euen hareik, han Aurreko Mendixan. Sarramendi etxian.

- Ez, ez.

- Eta gero in euen onduan...

- A, bueno! Nik ez jakiat etxeko konturik ez jakixat. Hantxe barri-barrixa inddakua dok ha, eskolatarako eta inddakua. Eta nik han ikasi nitxuan eskolak, zortzi urtetik eta hamaika artian.

- A? Antzuelas Beittin egon ziñanian hara faten ziñan?

- Klaro, han xauan orduan maistrua Gregorio Larrañaga, ondo akordaitten nauk, Oñatin hil zuan. Fraidetan ya burua endreau xakola-edo, Kuban edo zeratan, handik urtenda, baiña eskolia irakusten xuan...

- Ondo, ezta?

- Erderaz hala be, eta orduan erderaz ikastia zuan problemia hemen. Ondo erakusten xuan eta hantxe ikasi giñuan eskolia bastante, eta gero ba ni handik etorri nitzan badakik, hamaika hamabi urtera, eta hamabi urte. Beste urtebete in nuan Madalenako eskolan, azkeningua zan aurreko maistrua, ez xat izena zela akordaitten naizen, hola Eliseo... ez xat izena akordaitten. Maistro bat oso ona, hemendik Gabirira fan zuan. Enda harek esaten nostan, etxian falta itten nebela eta hurrengo urtian be ezin nekiela, fan nitzuan despedittera eta “qué pena me das, qué pena, ahora que...”, ointxe ezaguketan hasi nitzala zerak, matematikak eta honeik, problemak-eta, ez dok entenditten? (...)

7. 17 urterekin apendizitisa

- **Erref:** ONA-073/012
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:23:22. **Bukatu:** 00:27:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

<p>Diru beharra zela eta, lanean hasi zen 14 urterekin Fanderiako zerrategian laguntzaile. Gerra hasi zen arte jardun zuen bertan. 17 urterekin apendizitis ebakuntza izan zuen Donostian. 14 egun egon zen ospitaleratuta, eta 1.025 pezeta ordaindu zituen.</p>

Transkripzioa

- Etxian beste urtebete bat pasau nuan. Aitta be baserrixan lan larregi, famelixa haundixa, baserrixan lan larregi, eta ez dok mendikua moduan gaiñera, ganauari be dana etxera ekarri bihar askara-ta. Bueno, urte bete bat pasau nuan ta gero, duro bat ez jakuan iñok, duro bat iñok be ez jakuan, eta ha irabaztera, ni hasi nitzuan fabrikan Fanderixan. Orduan xauan Fanderixan pinttura fabrikia eta zerria, zerratxo bat. Ni ba zerran, zerrara ajudante, zerrarixen ajudante hasi eta han pasau ñuan gerra denpora arte, sei urte, “de catorce a veinte años”, sei urte Fanderixan, fabrikan. Dirua etorten zuan handik, nik irabazten nuan orduan lau pezeta egunian. Baiña hillian bi aldiz zera...

- Sobria.

- Pagia, ta gure ama difuntiak makiña bat aldiz, “hau dok dirua hau, hau dok dirua hau, atzera fan biharko haiz atzera fabrikara”, holaxe esaten xuan harek, “hau dok dirua!” Klaro, norberak pezeta pare bat hartu poltsikora eta bueno, ez zebeñ falta itten dirua. Bera aurreraketako baiña, orduan guk aurrerako interes zerakin, ez dakik? Ha aurreratu. Gero hamazazpi urtekin operau in nitzuan, operau in nitzuan hamazazpi urtekin, apendizekin. Fabrikan nabillela tripako miñakin, hartu mendixan bajau ta gero neri medikuak, “apendiza dakok”, baiña gero atzera reponiu in nitzuan ta “lanian hasiko zara”, eta lanian, operaittia hoba izango zala eta, orduan operaittia zuan grabia e? Eta gaiñera nun? Dirua ez jauan ta.

- Noraiño eruan zindduein operaittera?

- Donostira. Gero hasi nitzuan fabrikan, eta ezer sentitten baneben aguro etorteko etxera-ta, estomagu miña sentitten nuan ta etxera etorri nitzuan ta apendizia operau in bihar neuela, [...] baiña ondo jarten nitzanian. Hemendik sartu autubusian, Brinkolara, Brinkolan trena, Norteko estaziñora, eta han zerian, tranbian Ategorrietara ta bertaraño, ixa klinikaraiño. Ni operau nindduan medikua, mekaueñ diez, hementxe aldian xakuat gaiñera, araiñun etorri zuan, kuriosidadez gorde in xuaten ofizinan irakusteko asmua [...] onkolojikuan, hauxe plano hauxe eskribiuta, Don Jose Aiestaran, gizona [...] zuan hau.

- Hori zan...?

- Honetxek operau nindduan ni.

-A, bai, e?

- Onkolojikua, onkolojikua honek...

- Berak hasittakua?

- Honek hasi ebela.

- Eta zenbat egun in zittun, han?

- Hamalau egun ospitalian.

- Eta gero lanian arte zenbat egun?

- Ba orduan badakik, etxian artian udazkena eta garixak be ereittekø xauan ta... egunak ba, ez nauk akordaten baiña orduan hillabete eta holakuak baiño gehixau, e? Orduan gabonak arte behintze gutxienez pasauko nuan, ez jakiat ze fetxatan zan be, nobienbria-edo izan bihar eben. Ondiok fakturak xakuat, konserbau itten xuat.

- Goguan dakotsu zenbat pagau zebeñ?

- Konserbaitten xuat. Horretxeatixek.

- Eta goguan... akordaitten zara zenbat pagau zebeñ?

- Zenbat pagau bai, uste xuat hamar egunekua izan bihar zala “mil veinticinco pesetas”.

8. Lanean eta gau-eskolan

- **Erref:** ONA-073/013
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:27:24. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Apendizitisa izan ostean, sendatu eta gero zerrategian jarraitu zuen, gerra hasi zen arte. Orduan ez zegoen ordaindutako bazarrik, istripu-asegurua besterik ez zuten lanean. Lanean zebilela Zubillagako gau-eskolan ikasi zuen.</p>

9. Zubillagako industria gerra ostean

- **Erref:** ONA-073/014
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerran artillerian egon zen. Gerratik itzuli zenean Altuna lantegia eta ola zeuden Zubillagan. Olak ez zuen arrakastarik izan. Gero Enara izango zena jaio zen. Fanderian ere jarraitzen zuten lanean.

Transkripzioa

- Orduan gaiñera etxiak gutxiago baiña umiak gehixau etxietan.
- Klaro. Gu be, geuk be arrimau euki (di)txuagu baiña, gu izan gitzuan zortzi, zortzi anai-arreba, enda ba ni Beittin nitzan denporan be, behintze bat gutxiago, ez dakik? Ya tripia beteta. [...] Eta gero gerria etorri zuan ta, gerran suertia euki giñuan, ez giñuan euki geuk, artillerixia tokau xakuan eta oñatiar mordua egon gitzuan alkarrekin, araoztarrak be bai.
- Joxe Mari ez zan zurekin egon, Sarramendi?
- Ez.
- Ha be artillerixan egon zan.
- Bai baiña ha ni baiño bi urte gaztiaua dok, Joxe Marik. Uste xuat dala “del treinta y nueve”, gu “treinta y sietea” gaittuk kinttaz.
- Ha zan hemezortzixan jaixua.
- Bai ba.
- Eta zu hamaseixan.
- Hamaseixan, bi urte. Eta gero gerriatik etorri nitzanian ba hau etxe onduan, Altunena. Zeatik hemen beste fabrikarik ez jauan. Gero olia Zubillagan, oin Gaitu eta zerok daozena, hor ondiok hango zerak segiu itten xok. Hor zuan Espaiñiako fabrikarik inportantiena zuan hori orduan, baiña Elorza anaiak zela flautak urten euen eurak, azkenian ezebezia geldittu zuan. Gero hareik fan ziuzan Azkoittira, beste batzuk hartu xuein, ha Azkoittira fan zuan parte haundixa eta gero hasi zuan berriro hemen Enara-edo.
- Hori Enrikek-eta.
- Bai, hori dok. Enrike, anai bixak, hil zana Pedro. Eta nere anaia horko fundadorietakua, Ramon, oin Zubillagan bizi dok.
- (...)
- Horreik hasi xuein hau, ez dakit zenbat ziren, Anduagakua be bai, Juanito ha be hil zuan. Eta lehen esatera nixoiara, Altunena, Fanderixiak beti segiu xuan, eta hemen hurrago ta ba, hortik ez giñaukan lanera fateko, zenbat eta hurrago gura. Hemen hasi nitzuan ni.

10. Zerrategia erosi Zubillagan

- **Erref:** ONA-073/015
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:35:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Diortxueneko Pedrok eta berak pentsatu zuten Zubillagan salgai zegoen zerrategia erostea. Nikolas Errastirekin elkartu eta erosi zuten hiruren artean. 25.000 mila pezeta aurkitu behar izan zituen Pedrok bere zatia ordaintzeko.

11. Ganadua eta ardiak

- **Erref:** ONA-073/017
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Etxeko ganaduak apurka-apurka kenduaz joan zen. Erretiratzeko adina iritsi eta gero kendu zuen azkenengo behia. Pedrok dio bere lehen lanbidea artzain izan zela. Morroi zegoela ikasi eta gero etxean jarraitu zuen ardiekin. Askazubiko etxolan urtean bi hilabetez egiten zuen lo, ardiak jezteko garaian.</p>

Transkripzioa

- Eta zuk lan horreik danok itten zittuan bittartien etxien ganaurik-eta bazeukan?
- Ganauak euki [...] ahaldun danian, ahal izan danian, zeatik aittak be afeziño haundixa xakuan, eta gure aitta be "noventa añosera" ez zuan aillau baiña sei hillabeten faltan hil zuan, enda ganauak gustau itten xakuan, azkeningo urtietan karretero be ibilli zuan ta, apurka-apurka horreik be, leheningo idixak danak fuera, eta gero zeori, ekonomiori pittin bat mejorauaz xoiala, hiru zela geukan, ba bi behi, ta gero bat, ta gero bi, ta gero azkenian bat, eta batekin berihela aspertu ta fuera, fuera. Ba izango dittuk hoge... hoge ta pare bat urte, edo hiru bat? Etxian nauela.
- Jubilau eta gero kendu zebe azkenengo behixa?
- Bueno, jubilauta bai baiña, baiña ni erretirau ez nauk in, jubilau eta gero urte askuan lana in xuat, ez jakiat noiz arte, ez jakixat. Jornal barik e?
- Hori be afeziñua, ezta?
- Jornal barik. Han terrenotxo bat baxakuau pabelloiena eta zerana-ta...
- Eta ganauak aparte, ardirik edo eukitten zeuein?
- Oin esango dostat, nere leheningo ofiziua artzai dok, e?
- Zure leheningo ofiziua?
- Ni Aurreko Mendin Beittin nenguela ikasi nuan. Eta gure etxien falta itten xuan gero, handik etorri nintzanian. Eta hortik eta hemendik ardi batzuk

ipiñi gitxuan ta ba, aguantau nitxuan ardixak, ba ni hasi nitzuan ardixakin hamabi urtea ezkerro, aurretik banaka batzuk baxazan baiña gehittuaz, eta hamahiru urtekin nik han Askazubi onduan goixan lo itten hasi nitzuan, gabien, “del uno de”... zeatik San Prudentzio zer da? “veintiocho de abril; del uno de mayo hasta treinta de junio”, bi hillabete. Ardixak jaitzi, marmittia aldian dala, eta urte baten kontsegiu nuan bi marmitta zera ittia, bat aurrian eta bestia atzien, bixkarrian txandauaz. Ta gustora. Fabrikan lana in, eta gertu eukitten xuan afarixa, etxian zerian eta ni aide. Nire moduan beste bat, hemendik be bai. Leheningo urtian bi gaztek in giñuan etxabola baten lo, eta bigarrenian hamalau urte ezkerro, ni bakarrik. Bi hillabete.

- [...]

- Orduan bi ordun diferentzia xakuan orduak bai, oinddik, eta asko dok e? Goizeko bostetarako txorixak kantuan hasten txan gero orduen e? Han.

- Eguzkixakin batera.

- Ha zuan bizimodua orduan goizian, txori danak kantuan, txori klase danak, oin desapareziu (di)ttuk asko.

12. Gazta eta artilezko koltxoiak

- **Erref:** ONA-073/018
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:43:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Esnearekin gazta eta artilearekin koltxoiak egiten zituzten. Gaztagintza kenduta, beste ardi-lan guztiak ikasi zituen Pedrok. Ardiak nola mozten zituen azaltzen du. Orain artileak ez du batere baliorik.</p>

Transkripzioa

- Hori dok, ni artzai eta etxeko zerbiziñorako e? Orduan etxian koltxueto bat edo bi itteko ulia be, nik ardixak mozten nitxuan hamalau urte ezkerro korriente, e? Han Beittin ikasitta. Hamaika urtekin han ikasitta.

- Zenbateko artaldia?

- Berrogei bat ardi edo hola. Nehikua zuan guretako.

- Orduen gaztaia be ingo zeuein.

- Gaztaiak itten (zi)txuan amak, aunkesea, orduan etxauan frigorifikorik baiña, [...] aunkesea bi egunetako bat inda-edo. Orduan freskuran kontserbau itten zitttuan gauzak, e? Esnia delikaua dok, e?

- Oso. Baiña baserrixen betik dakuei leku bat...

- Bai ba, [...] nik askori esaten xostiet, pastore hor Arantzazun ikasten dabitzena-eta. Pastore ikasi guk in giñun, ez hor Arantzazuko fraidiakin eta Gomiztegin edo zerien.

- Zuk kontu ederrak ebaliko (di)ttozu orduen Manuelekin, Gernetako Manuelekin.

- Nik askoiri esaten xostiet, ni askok esaten xok, ni artzaia izan naizela pastoria, artzaia, nundik nora? Nundik nora? Nik ikasi xuat, unikamente gaztaia itten ez, hor ez nauk sekula sartu. Baiña nik ardixari ulia moztu, eta buztana kendu bihar xatenien buztana moztu-ta, nik ardixairi itten xauan zer guztiak partua ta hori, ardixen partuak? Ez jauan orduan [...] beterinarixuari eta iñori abixau biharrik. Horreik danak ikasi nitxuan nik, askok ez juei sinisketan, hori halaxe dok. Ni hortik pasauta nagok.

- Eta ulia zela mozten zetzazuen?
- Orduen artazixakin, ardixendako [...], oin zerakin, makiñakin, oin diferente da.
- Eta ze itten zeuen, hartu ardixa?
- Leheningo ardixa hartu hola ta, dra! Atzekaldeko epurdixen gaiñian ta, zera bihar da, sasoia be bihar da, e? Kordela ona preparau leheningo eta gero lau hankak alkarrengana juntau, hankak lotu. Leheningo tripapeia zutik dala tripapeia moztu. Tokau izan xat narruan pikatan bat edo beste ittia be. Gero lotu, leheningo alde bata, taka-taka-ta... alde bata, buelta emun eta gero beste aldia eta soltau hankak eta "allá va el pelín". Uliak orduen asko balixo xuan, gaur mozteko be ez jakok.
- Gaur kendu alde.
- Kendu alde askok, batzuk ez esaten xuei, ez jakiat.
- Igual basurara.
- Ez jok balixo. Halako aukerak, halako zerak, koltxoiak eta lo itteko-eta, e? Orduen ez, orduen etxerako falta itten xuan.
- Baiña orduen kalefaziñorik be ez euen, ta... artulezko koltxoiak berak berotu!
- Klaro.

13. Lehenagoko ardiak gogorragoak

- **Erref:** ONA-073/019
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lehenagoko ardiek, Pedrok dionez gosea pasatzera ohituta zeudenek, gaixotasun gutxiago izaten zuten. Baina batzuetan gaztaina-jana egin ondoren, lehertu egiten ziren ardi batzuk.

14. Artaldeak gutxituz joan dira

- **Erref:** ONA-073/020
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ardiak neguan etxean egoten ziren, belar ondu eta arbiarekin gobernatuta. Behin martxoa pasatakoan, mendian libre egoten ziren. Pinurik ez zegoenean larre gehiago zuten abereek. Garai batean ia baserri guztiek zuten artaldea. Gaur egun bi baserrik besterik ez dute jarraitzen ardiekin Zubillagan.

Transkripzioa

- Eta nun erabiltzen zenduezen?
- Ardixak?
- Bai.

- Oin neguan hementxe, etxe inguruan, ahal dan moduan. Udan erretirautako behar igarra beuen ondo. Arbi denporan arbixa puxka bat febrero-marzo aldera eta. Ez, behin marzoa ezkerro ez, behin febrero-marzoa ezkerro libre, orduen piñurik eta ez euela ta larra gehixau xauan, basuan be.

- Ardixa be bai gehixau.

- Bai ardixa be, oin esaten xuau oin be asko dauela, baiña keba! Oin hemen hiru etxe honeittatik, bi artalde barik behintzet, hirugarrenak banaka batzuk bai. Eta gero ba hor gora...

- Hori lehen.

- Hori lehen.

- Gaur horreik be ez.

- Gaur bape ez xok, hemen bapebe ez xauk, gure aldekuak xakok oin hogeta zortzi bat-edo, solterua, ointxe jubilau in dok bera bere kapritxuz Altunenetik. Ointxe urtebete. Eta horrek hemen zertzen (di)txuk, geure zelaixak horrek ebalten (di)txuk eta.

- Garbittu alde, ezta?

- Klaro.

- Eta Matromaik be eukiko (di)ttu...

- Matromaik artaldia hor dako Matromaik. Hori be fan dok. Matromain hor neska-mutillak xazak, eta Miel ez dok ezertarako gauza.

- Orduan ya ez dakuei ardirik?

- Bai.

- Eta nok ebalten (di)ttu?

- Udan zera faten (di)ttuk, Degurixara.

- Degurixara, bai.

- Fan ez, bialdu itten (di)txuei, Araozgo zeren batek lagunketan ostek ardixok eruaten ta, baiña Miel han egoteko ez dok gauza ya.

- Eulali eta Miel bixak dagoz Matromain?

- Bai, bixak. Besterik ez, bixak xazak. Beste arreba bat hemen xakok, Garaikuan, Mendizabal.

- Eta hemen orduen Zubillagan be, garai baten etxe danak euko euen euren artaldia ta euren ganauak.

- Hemen baserrixak gehixenak, bai. Eta ganaua be gehixenak.

15. Trenaren inaugurazioa

- **Erref:** ONA-073/021
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:50:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Askazubi Zubillaga auzoko baserria izan arren, bertakoak Koixkarko (Korosbizkar) elizara joaten dira. Antzuelas baserrian morroi zegoela trenaren inauguraziora etorri zen kalera. Berak zortzi urte zituen eta luxuzko inaugurazioa gogoratzen du; Madrilgo nagusi guztiak etorri omen ziren.</p>

16. Ia San Pedroko erromerian jaioa

- **Erref:** ONA-073/022
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:50:40. **Bukatu:** 00:53:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Trena jarri aurretik kalera oinez joaten ziren, eta geroago ere bai batzuk, txartela ez ordaintzeagatik. Zubillagatik kalera beharrezko gauzetara besterik ez ziren joaten. Pedro Torreausoko jaietako erromeria gauean jaio zen, bere ama erromeriatik Zubillagara presaka etorri eta gero.</p>

Transkripzioa

- Zuek hemendik jokeria, juan izan zarai herrira askotan, edo auzuan egitten zenduen bizimodua?

- Herrira askotan ez, baiña fan bihar zanian ba trenien.

- Eta trena ifiñi aurretik ze ebalten zeuen, oiñez-edo?

- Oiñez, trena ifiñi ta gero makiña bat oiñez ibiltten zuan, trena pagau bihar zalako, nahiz ta zapata gehixau gastau.

- Eta hemendik Bergarara-ta bazakazuen be bai? Azkenian San Prudentzio-ta nehikua urrian dakazue ta...

- Ba San Prudentziora zetara fanik ez, San Prudentziotan eta. San Prudentzioko fiestak edo izan zien, orduen ba fiestetan-edo. Gu berriz, ni berriz ya fiestetan ez xuaut astirik euki fiestetara fateko.

- Zu gaiñera jaixo be, Zubillagako jaittan jaixo ziñan, ezta?

- Bai.

- San Pedruak dira hemengo jaixak.

- Baiña hor kuriosidade esaten xuan gure famelixan aittak eta danak. Ni atendi nindduan medikua, urte pare bat edo etorri zala, Zubillagan amistiadiak baxakuan eta; San Pedron, auzo hau dok Zubillaga, San Pedruak xakok baiña, San Pedro inportantiaua zuan hau baiño orduan, itxuria. Eta han itten xuein erromerixia, eta ni amen tripan, aittakin, erromerixan San Pedron. Entenditten dok? Erromerixara fanda. Eta gabian hamarrak izango zirala, hamarrak inguru hori, eta hamaika t´erdittarako jaixota nenguela. Oiñez etorritta, orduen trenik eta puiñetarik, e? Oiñez etorritta handik Zubillagara eta medikua Arzuru zuan orduan, medikua oso ona zuan. Eta medikuak "escasamente" etorriko zala berak esan baotsa zela eukan, handik Zubillagatik Martezkora. Ez dok entenditten? Zetik, San Pedrotik Martezkora, hau Martezkua zela dan etxe hau. Oiñez etorri eta bentaja in txan, itxuria, segiduan jaixo. Medikuari abixau txain eta medikuakin berba itten egonda, hamarretan San Pedron. Medikua gaztia zuan artian ta erromerixara. Eta gero sinistu ezindda.

- Oseake ixixa-ixixa Torreausoko erromerixan jaixo ziñan?

- Ixixa bertan.

- Itxuria, itxuria dauenez. "veintinueve de junio", San Pedruan; Pedro hatik xakuat izena, bueno, hatik edo. Ba holaxe kontuak.

17. Ibilaldi luzeak neska-laguntzen

- **Erref:** ONA-073/023
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:53:32. **Bukatu:** 00:55:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Lizargarate aldera joateko joera handia zuen Pedrok. Lizargarateko erromeriatik neska-laguntzera kaleraino joaten ziren gaztetan.</p>

18. Argindarra eta ura etxean

- **Erref:** ONA-073/025
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:56:52. **Bukatu:** 01:00:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Pedrok argindarra beti ezagutu du etxean, Cerrajera-k Olatetik ekarritakoa. Ura etxean gerra aurretik jarri zuten, Garaiko etxekoekin batera ur-andela (depositua) jarrita. "Urrutxu" igeltseroak egin zuen ur-andela. Askazubi azpitik dator ur hori eta gaur ureztatzeko besterik ez dute erabiltzen.

Transkripzioa

- Eta zu umia ziñanian, hemen argixa ta ura bazakazuen etxian?
- Argixa ta ura, ni akordaitten naiz, gu leheninguetakuak ixa, e? Baiña bai, bonbilla ahal dan moduko bonbilla kaskartxo batzuk eta. Zerrajeriak ipiñi xuan, Zerrajeriak ipiñi euen.
- Zure garaixan igual ya Olatetik etorriko zan, zuendako inddarra?
- E?
- Olatetik etorten zan zuentzako inddarra?
- Bai, Olatetik ez, igual etorriko zuan, bueno, Olatetik pasau itten zuan hemendik, entenditten dok? Linea bat fijo, zeatik hortik etorten zuan honutz, hortik etorri lekien, hortik. Baiña zerrajeriena zuan, Oñatiko urakin inddako zera zuan hori.
- Baiña zerrajeriak zentrala eukan Olaten, ezta?
- Bai, bai, Olaten. Olaten, oin aiuntamientuana dana.
- Baiña hareik inddako inddarra etorriko zan hona.
- Hareik han in xuein Mondraueko fabrikatarako eta, parte, deposittuak-eta zela indda dagozen, pantanua, goiko pantanuak-eta.
- Bai, kanalak-eta.
- Zerrajerarako.
- Orduan hemen zuek suertia euki zenduen, ez? Zerrajería dala ta behintzat argixa etxien.
- Klaro.
- Eta fregaderan ura?
- Guk, guk bastante aguro. Guk zenbat, ze urtetan izango zan, baiña...
- Zu ezkondu aurretik-edo?
- Ez, ez. Ezkondu aurrretik? Bai, bai, asko lehenao. Probablemente gerra aurretik. Guk, Garaikua Mendizabal eta guk, xakuagu depositto bat konsegiuta Oviedotik eta zerien, eta ointxe renobau dok, ointxe urtebete edo bi, beste hiruta hamar urterako. Eta lehen be, urte ez xat zenbat, urte asko hori konsegiu zala eta guk hortik euki xuagu ura sufiziente.
- Eta hori deposittua egindda ekarri zeuein?
- Ez, ez, ez, zementua bertan inddda, hori in xuan Urrutxuk, Urrutxu

entzunda dakok sekula, Urrutxu?

- Igeltserua?

- Urrutxu, bai.

- Bai, Itturritxo parian bizi ziran.

- Urrutxun aittak. Azkenian bere burua galdu ez dakit ez eben in, semiak emun otsan disgustuakin. Bai, gizona fiña zuan ta. Kuestiñua dok harek zuan obria in ebena. Ondo hartuta xagok ura, eta hori erreka aberatsa dok, oso aberatsa. Hor egon (di)ttuk amorraina, angilia eta danak hemen, bastante goraiño arte. Eta ura sufiziente. Oin ez dok lehenaoko normala, ura etorri nehikua, oin ez xuagu ya kasik...

- Baiña Oñati errekatik edo mendiko erreken batetik?

- Mendittik, Askazubi azpitan formaiten dok, hortik behera. Errekatxua hori konsegiuta zeretik, e? "Con todas las de la ley", oin renobaziñua be halaxe in xuagu.

- Eta ondiok be hortik dakotzue edo ya herrikua...?

- Baxakuau hori galdu barik, oin hartzen xuagu udan erregadixorako eta hola, bestela ez xok merezi gaur egun, dagozen higie eta gauzakin, hor Urkulukua gastaiten xuagu. Hori purifikauta, purifikautako ura dok. Horixe, oin horkua, baiña bestia galdu barik, e?

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com